




NERABEEK MUGIKORRA IZATE
BIDEAN LAGUNTZEKO



HELDUENTZAKO GIDA



Gida hau Izarkomek ondorengo eragile eta adituekin elkarlanean eginiko lana da



Telmo Lazkano

“No Phone Challenge”, “Nerabeen Garrasia”

Miren Ros

Bidelagun-Hezitzailea

Orkatz Goenaga

Altxaburua

Leyre Cano

Treba Gurasoak-Gipuzkoako Foru Aldundia

Rakel Gamito

EHU-Irakaslea eta Ikertzailea

LG D 01074-2023

Antza S.A.L.k argitaratua

1.edizioa 2023ko azaroa



1. Noiz emango diegu lehenengo mugikorra?

04

1.1 Zein beharri erantzuten dio?

05

1.2 Behar horiek nola asebetu

06

2. Kontzientzia hartzea

06

2.1 Arriskuen inguruan hausnartzea

06

2.2 Benetako eta
sortarazitako beharren
artean bereizten jakitea

07

3.4.LAUGARREN FASEA:
norberaren gailua

16

2.3 Mugikorraren
erabilera aztertzea

09

3.5. Ibilbidearen
amaiera

17

2.4 Erabilera
Hitzarmena

10

3.6. Laburpen taula

18

**3. Lehenengo
mugikorra
eskuratzeko bidea**

12

4. Ideia nagusiak

19

3.1. LEHEN FASEA:
helduen gailua

13

**5. Zer dute nerabeek
esateko?**

20

3.2. BIGARREN FASEA:
familia erabilerako
gailua

14

6. Azken gogoeta bat

21

3.3. HIRUGARREN FASEA:
norberaren erabilerako
lehen gailua

15

7. Erabilera Hitzarmena

22

1. Noiz emango diegu lehenengo mugikorra?


Familia askoren kezka izaten da honakoa: zein adinekin eman behar diegu gazteei **lehen mugikorra?**


Izarkomen gomendioa 16 urtetik aurrera da, eta ahal dela, 18tik aurrera. Baina adinarekin baino, heldutasunarekin dauka zerikusi handiagoa.

Izan ere, neurologoek diotenez, 16 urtetik aurrera lortzen du gure garunak halako gailu bat egoki erabiltzeko heldutasuna. 16 urtetik aurrera errazagoa izango da erabiltzaileak kontrolatzea gailua, eta ez alderantziz.

Gogoan hartu behar da menpekotasuna sortzeko aplikazioz josita daudela mugikor eta orokorrean internetera konektatzeko erabiltzen ditugun gailuak: Scroll infinituak, etengabeko jakinarazpenak... Adikzioa eragiten dute, eta azken finean, horixe da industria erraldioen helburua. Izan bideojokoen industria, izan ikus-entzunekoaren edukiena, baita sareena eta sare sozialena... Den-denak **gure arreta bereganatzeko lehia bizioan dabilta.**

Gaur gaurkoz Euskal Herrian batez beste 11-12 urterekin erosten zaie hurrei lehenengo sakelakoa. Baina adina atzeratzearekin ez da nahikoa eta segapotoa eman aurretik, erabilpen egoki bat egiten irakastea gomendatzen dute adituek. Bidelagun izan behar dugu, eta txiki txikitatik hezi behar ditugu teknologien erabilpenean. Izan ere, autonomia eta heldutasuna behar baino lehenago aitortzen dizkiegunean dator arriskua.





Ba al zenekien...?

Gailuetako aplikazioak erabiltzeko gutxieneko adina 14 urtekoa bada ere, profesionalen aholkua 16 urtera arte luzatzea da. Pentsa, aplikazio hauek sortzen dituzten enpresetako goi karguek, ez diete 16 urte bete arte mugikor adimendunik ematen euren seme-alabei.



1.1 Zein beharri erantzuten dio?

Gure lehen erantzunak ez bazaitu guztiz asetzen, lehen mugikorra zein adinetan eman erabakitzeko modu bat ikuspegia aldatzea da eta geure buruari galdetzea...

Zein behar bete behar du eta **nork du behar hori?**

Gaur egun agertzen diren beharrak, laburbilduz, bi dira:

- **Nerabeen aldetik:** Besteak bezalakoa izatea (“Ikasgelako bakarra naiz mugikorrik ez duena”). Lagun eta ikaskideen artean mugikorraren erabilera orokortzen hasten denean bere burua taldetik kanpo suma dezake.
- **Familiako helduen aldetik:** Segurtasun sentazioa ematen digu helduoi gure haurrak uneoro non dabilzan jakiteak. Gure beldurrak lasaitzeko dugun grinari erantzuten dio behar honek.

Ikuspegi horretatik abiatuta, hauxe da gure proposamena: nerabeari lehen telefonoa ematerakoan, familia edo bizikidetzeta unitateko kide modura, elkarren artean koordinatzeko premia dagoen edo ez ikustea eta baloratzea.

Teknologiekin eskaintzen ditugun esperientziek, haurraren garapen momentuari erantzun behar diote eta ez eskakizun emozionalari.

1.2 Behar horiek nola asebate

Beharrak identifikatu ondoren, hurrengo urratsa interneterako konexioa duen *smartphone* bat behar ote dugun aztertzea da.

Esate baterako, 11-13 urte inguruko nerabe batek garraio publikoan bidaiatu behar badu, helmuga-puntura iritsi dela ziurtatzea baino ez dugu behar, edo, gehienez ere, ibilbidean edozein ezustekoren aurrean laguntza eskatzeko modua baduela jakitea.

Kasu horretan, soilik deiak egin eta jasotzeko aukera duen mugikor bat aldean eramatea aski litzake, eta etxean daukagun sakelako zaharrak balioko liguke horretarako.

Premia lagun-taldetik kanpo ez geratzeagatik badator, gurasoen mugikorra erabiltzen has liteke (eta sare sozialetan gurasoen profila baliatzen). Proposamen honek gurasoa mugikorraren erabileran bidelagun egiten du.

2. Kontzientzia hartzea

2.1 Arriskuen inguruan hausnartzea

Lehenik eta behin nabarmendu behar da ez dela gauza bera ***smartphone* bat edo ahots-deiak egitea eta jasotzea ahalbidetzen duen telefono arrunt bat.**





Gazteekin formakuntza hau egin ahal izateko pantailen auziari buruzko dokumentalak ikusi (“El dilema de las redes sociales” 2020, adibidez) eta elkarrekin arakatu dezakegu aplikazio hauen funtzionamendua, adikzioen arrazoiak... edo gai honen inguruko liburu bat irakur dezakegu elkarrekin, hitzaldi batera joan... helburua guraso zein nerabe, elkarrekin, pantailaren beste aldean dagoen benetako mekanismoa ulertzea izango da. Izan ere, gailuarekin harreman osasuntsu bat eraikitzeko gakoa, **gailuaren benetako izaera eta funtzionamendua** ezagutzea eta ulertzea da.

Inork ez du beste inoren produktu izan nahi, ez du manipulatu izaterik nahi, horregatik izango da garrantzitsua ondorio honetara gaztearekin berarekin batera iristea. Eurak izango dira harreman osasuntsu hori eraiki nahiko duten lehenak, eta hartara bidea ikaragarri erraztuko da.

Smartphone bat gehiegi erabiltzearekin lotutako arriskuak **adikzioa eta ziberjazarpena edo ziberbullyinga** dira nagusiki, eta hauek era berean beste arazo batzuk ere sor ditzakete, hala nola:

- Familia-isolamendua.
- Errutina eta zaletasunetan aldaketak.
- Loaren alterazioak.
- Eskola-porrota.
- Umore eta gizarte-harremanetan aldaketak.
- Estresa teknologia eskura ez dagoenean.
- Antsietatea eta depresioa.
- Autolesioak eta jarrera suizida.
- Dementzia digitala
- Motibazioaren moteltzea
- Frustrazio gaitasuna zigortzea.
- Hizkuntza eta komunikazio gaitasunen pobretzea.

Garrantzitsua da heldu zein gazte, arrisku hauen jakitun izatea.

Gazteak “babesteko” asmoz, informazio hau ezkutatzek ez gaitu arazotik kanpo uzten. Gardentasunez eta zintzoki, gure kezkek azaltzea eta informazioa bilatzea izan daiteke lehen pausoa, uler dezaten arriskua hor egonik, babes neurriak hartuz erabilera on bat egiterik badagoela.

2.2 Benetako eta sortarazitako beharren artean bereizten jakitea

Behar batzuen eta besteen arteko aldea zehaztea zaila izan ohi da. Adibidez, telesail bat ikusten egon gaitzke alde batetik sorkuntzagatik, baina baita ere ihes egiteko edo burua beste norabait eramateko beharragatik.

Erabilera probetxugarria:

- Pertsona edo talde batekin informazioa partekatzea.
- Eskolan ikasten ari denari buruzko informazioa bilatzea.
- Eguneroko kudeaketak egitea (garraio-txartela erosi edota sendagilearen hitzordua hartzea...).
- Kultura baliatzea (musika entzutea, filmak ikustea...).

Erabilera narkotikoa:

- Joko soil eta mendekotasun-sortzaileetan jolastea.
- Sare sozialak modu konpulsiboan begiratzea.
- Edukiak bata bestearekin lotzea (bideo bat bestearen atzetik, meme bat bestearen atzetik...).

Beharrezkoa ez den erabilera (premia modu atseginagoan bete dezakegu):

- Lagunekin hitz egitea (hobe aurrez aurre).
- Ihes egin edo distratzea (hobe aisialdiko beste edozein jarduera).
- Denbora-pasa (hobe denbora erraz eten daitezkeen jarduerekin pasatzea; adibidez, liburu bat irakurtzen)

Zer da erabilera narkotikoa? Adibidez, telesail bateko atalak bata bestearen atzetik lotzerakoan **denboraren nozioa** eta **nahikoa dela esateko gaitasuna** galdu egiten da. Orduan sartzen gara erabilera narkotikoaren esparruan.



2.3 Mugikorraren erabilera aztertzea

Mugikorra ematea erabakitzen dugunean, denok, **bai gazteak baina baita helduok ere**, gailuari emango diogun benetako erabileraz jabetzea pauso garrantzitsua izango da prozesuaren arrakasta bermatu nahi badugu.

Mugikorrek ere, elikadura edo hizkuntza bezala, ikaste-prozesu bat behar dute. Eta mugikorra nola erabiltzen dugun konsziente izateko, erabilera-datuak beharrezkoak ditugu: neurtzen ez dena ezin da ezagutu; ezagutzen ez bada, ezin da kudeatu.

Horrenbestez, mugikorra gazte bati eman aurretik, bi aldean artean adostu behar genuke gailuaren erabilera aztertzeko zeri erreparatuko diogun. Bai erabileraren gaineko kontzientzia hartzeko, baita erabaki arrazoituak hartzeko ere.



Denborari dagokionez, Osasunaren Mundu Erakundeak gehienez, egunean bi orduko topea jartzen du. Hala ere gure mezua honakoa da: “Zenbat eta pantaila gutxiago hobe; Zenbat eta giza harreman gehiago, hobe” .

Datu hauek aukera emango digute:

- Mugikorraren erabilera ebidentzietatik abiatuta aztertzeko, eta ez oso distorsionatuta egon daitezken pertzepzio hutsetatik.
- Mugikorra erabiltzeko baldintzak adosteko (denbora, zertarako, noiz, nola...).
- Adostutako erabilera-baldintzak betetzen diren edo ez baloratzeko.

2.4 Erabilera Hitzarmena


Erabilera Hitzarmena, izenak adierazten duen moduan, helduaren eta nerabearen artean mugikorra erabiltzeko baldintzak adostetik ateratzen den dokumentua da.

Erabilera Hitzarmen honek honako hauek jaso beharko lituzke:

Gainera Hitzarmena **alde bikoa** izatea gomendatzen dugu.

Helduok ere, elkarrekin adostutako erabilera konpromisoak har ditzakegu.

1. Zenbat denboraz erabil daiteke gehienez egunean/astean?
2. Asteko zein egunetan eta zein ordu tartetean?
3. Zer egiteko/Zein eduki mota?
4. Zein lekutan (etxe barruan, etxetik kanpora...)?
5. Zein egoeratan (lagun artean, zein jarduera motetan...)?
6. Nola egiten da erabileraren jarraipena (nola biltzen da informazioa, zenbatean behin baloratzen da, nork baloratzen du...)?
7. Zer gertatzen da hitzartutako punturen bat betetzen ez denean?



Erabilera Hitzarmena nerabeak oraindik mugikorrik ez duenean egin daiteke, mugikorra eskuratzeko baldintza gisa. (ikus 3.3 atala)

Erabilera Hitzarmena eguneratuz joango gara nerabeak kontzientzia eta erantzukizuna hartu eta beharrak aldatu ahala.

Erabilera Hitzarmena erabilgarri izan dadin, lehen urratsa nerabeari dagokio, batez ere erabilera arautu beharko duten adostasunei dagokienez. Horrela gertatzen ez bada alferrik izango da.

Aurreko orriko 7 galderak erantzunda hasierako proposamen bat egin dezake nerabeak eta helduarekin negoziatu.

Ondoren, proposamen hau fase bakoitzerako gomendioekin kontrastatu dezakegu (ikus 3.3 atala eta ondorengoak) eta baldintzak eta iraunaldia elkarrekin adostu.

Behin akordioa eginda, dokumentua sinatu eta ikusgai geratu beharko da erraz kontsultatu ahal izango den lekuren batean, alde bakoitzak goioan izan dezaten.


3. Lehenengo mugikorra emateko bidea

Mugikorraren erabilera kontziente bat egiteko behetik gorako ibilbidea egin behar dugu, erabilera horren konplexutasun txikienera, eta ezagutza maila apalagotik handiagara.

Urtetako ibilbidea da: **haurtzarotik* eta nerabezarotik hasi, eta 18 urte inguru artekoa.**

Gure erronka, laguntzaile gisa, gazteak, mugikorraren erabilera bere benetako premien zerbitzura eta bizitzako gainerako jardueretik orekan (ikastea, lan egitea, harremanak izatea, garatzea eta bizitzako esperientzia guztiak) autoerregulatzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatzea da.

Beraz, ekin diezaiogun!



**Gaur egun, pantailen erabilpena oso normalizatua dago haurtxoak garenetik. Hori dela eta, helduok kontuan eduki beharoko dugu zein erabilera egiten uzten diegun, horixe izango baita haien aurrekaria eta ondoren mugikorrarekin egingo duten edo egin nahi izango dutenaren oinarria.*



3.1. LEHEN FASEA: helduaren gailua (11 urte arte)

Mugikor pertsonal bat eman aurretik, hobe dugu helduren baten gailua erabiltzen ikastetik abiatzea. Horrela egiten badugu, haurraren garapen prozesuan laguntzeko aukera izango dugu.

Erreferentzia gomendagarriak fase honetan:

- Gehienez 30 minutu/egunean.
- Pantaila anitza ekidin (mugikorra eta telebista aldi berean).
- Beti erabilera partekatuko espazioetan (inola ere ez erabilera pribatuko espazioetan, hala nola bainugelan edo logelan).
- Jaiki eta gutxienez ordubetera.
- Bazkalorduan ez.
- Lotara joan baino bi ordu lehenago ez.
- Aldez aurretik adostu gailuaren erabilera (eduki eta denbora aldetik).

GOMENDIO NAGUSIA:

Gaztearen lagun taldean sare sozialak edo mezularitza-tresnaren bat erabiltzen hasten direnean, hobe da helduren baten profilarekin erabiltzen hastea.

3.2. BIGARREN FASEA: familia erabilerako gailua (11-13 urte bitarte)

Gaztea heldurik gabe mugitzen hastean, edo etxean bakarrik geratzen hasten denean, erabilera partekatuko gailua txertatzeko unea izan daiteke, hau da, familiarena den gailua (ez erabilera pertsonalekoa) eta helduaren baimenarekin bakarrik erabiltzen dena. Une hauxe izan daiteke egokia **Erabilera Hitzarmena** martxan jartzeko.

GOMENDIO NAGUSIA:

Gailuak gutxieneko smartphone-prestazioak izatea, gazteak bere harreman-ingurunearekin konektatuta egoteko oinarrizko beharrak asetzeko (hobe sare sozial bat bi baino. Honek ere adostua izan beharko du).

Fase honetan erreferentzia gomendagarriak:

- Gailuak interneterako konexioa etenda izan beharko du (etxean WiFira konektatu daiteke, jarduera konkretu baterako).
- Gehienez 30 minutu/egunean.
- Pantaila anitza ekidin (mugikorra eta telebista aldi berean).
- Erabilera partekatuko espazioetan beti (inola ere ez erabilera «pribatuko» espazioetan, hala nola bainugelak edo logelak).
- Jaiki eta ordubete pasata.
- Bazkalorduan ez; Ezta lotara joatean.
- Aldez aurretik adostu mugikorra zertarako (zaindu edukia) eta zenbat denboraz erabiliko den.

Fase honetan, gainera, gazteak ikasi behar du gailuak zainketak behar dituela: bateria kargatu, ondo zaindu, ez galdu...

3.3. HIRUGARREN FASEA: erabilera pertsonaleko lehen gailua (12 -15 urte bitarte)

Gaztearen autonomia handitzen den heinean, familiak barne harremanetarako gailu propioa izateko beharra senti dezake.

Fase honetan erabilera-itunerako erreferentzia gomendagarriak:

- Interneta **WI-FI konexioarekin bakarrik** (etxean).
- Gehienez 60 minutu astegunetan eta 2 ordu jaiegunetan.
- Pantaila anitza ekidin (mugikorra eta telebista aldi berean).
- Beti erabilera partekatuko espazioetan (salbuespen txiki batzuekin).
- Jaiki eta ordubeteren ondoren.
- Ez bazkaltzeko orduan, ezta lotara joatean ere.
- Aldez aurretik adostu behar dugu zertarako erabiliko duten mugikorra partekatu gabeko espazio batean.

GOMENDIO NAGUSIA:

Fase honetan, bigarren eskuko gailu bat edo erabiltzen ez den familiako bat erabiltzea gomendatzen da.

Izan ere, fase honetan frogatuko dugu gailua zaintzeko gaitasuna, gora-beheraren bat izateko aukerak handiagoak baitira (lurrera edo uretara erortzea, galtzea, lapurtzea...).

3.4. LAUGARREN FASEA: erabilera pertsonaleko gailua (15-18 urte bitarte)

Hau da azken fasea. Laguntza-prozesuaren konplexutasun puntu gorena litzateke. Kontratatuak datuak izatea eta, beraz, edozein unetan eta edozein lekutan Internetarako konexioa izateko aukera ematen duen gailu bat izatea. Taxuz landu beharreko kontua da.

GOMENDIO NAGUSIA:

Datu gutxiko tarifa bat kontratatu daiteke (gehienez 1GB/hilean) Horrek, zerbitzuaren erabilera arrazoitua egiteko aukera ematen du, hilabetez kudeatu beharko baitu kopurua. Gainera, datuen erabilera kontsultatzen eta datuak zertan kontsumitzen dituen ikas dezake gazteak. Wi-Fi-ra konektatzeko aukerarik ez dagoen lekuetan kontsumoa mugatzen, mugikorra konfiguratzeko datuen nahi gabeko erabilera murrizteko...

Fase honetan erabilera-itunerako erreferentzia gomendagarriak:


- Datu muga ezarri edo datu kopuru gutxi dituen tarifa ezartzea.
- Ordu eta erdi egunean astegunetan eta 3 ordu gehienez asteburuetan.
- Bazkalorduan ez.
- Mugikorrarekin ez oheratzea eta esnatu bezain pronto ez erabiltzea.

3.5. Ibilbidearen amaiera (18 urterekin)

18 urtetik aurrera, mugikorra erabiltzeko askatasuna eta erabilera horren gaineko erantzukizun osoa iristen dira. Orduantxe gomendatzen da titularra aldatzea, eta gaztearen izenean jartzea (ordura arte, legeak ez du aukerarik ematen).

Gainera, titular aldaketak bidea eman diezaioke gazteari mugikorraren erabilerak dakarren karga ekonomikoaz jabetzeko, kontsumoen jarraipen zehatzagoa egiteko, eta zerbitzu edo tarifa aldaketaren bat behar ote duen erabakitzeko.

Azkenik, gazteak gaitasun ekonomiko nahikoa duenean, zerbitzuaren ordainketa bere gain hartuko duen konpromisoa definitzea gomendatzen da.



3.6. Laburpen taula

	Jabetza	Zerbitzua	Erabilera hitzarmena
LEHEN FASEA	Helduena	Helduak kontratatua duena	Helduek ezarritako baldintzetan. Pribatutasunik gabe.
BIGARREN FASEA	Erabilera partekatua	Tarifa txikiena, datuak kenduta	Helduek proposatutako baldintzak. Pribatutasunik gabe.
HIRUGARREN FASEA	Erabilera pertsonala	Tarifa txikiena, datuak kenduta	Nerabeak proposatu eta helduarekin adostutako erabilera-ituna. Lagundutako pribatutasuna.
LAUGARREN FASEA	Erabilera pertsonala	Datu gutxi	Erabilera Hitzarmen adostua.
IBILBIDEAREN AMAIERA	Kontratuaren titularra	Erabileraren arabera (erabilera arduratsua egiten irakatsi)	Erabilera Hitzarmenaren amaiera.

4. Familientzat ideia nagusiak

- “Norberaren *smartphone*-a emateko momentua” ahalik eta gehien atzeratzea.
- Mugikorraren arriskuez eta erabilera mota ezberdinez jabetzea (helduak eta gazteak).
- Mugikor «pertsonala» emateko ibilbide mailakatua definitzea eta edukien egokitzapen progresiboa egitea.
- Partekatutako gailu batekin hastea (gurasoena, familiakoa).
- Lehenengo mugikor «pertsonala» deiak egin eta jasotzeko gailua izatea (ez *smartphone*-a).
- *Smartphone*-a, nerabeak gutxieneko heldutasuna duela frogatzen duenean ematea.
- Erabilerarako eta adostutako mugen araberako tarifa aukeratzea.
- Mugikorraren erabileraren hasiera «erabilera-itun» baten ostean egitea eta mugikorra emateko bidean aurrera egin ahala berau berrikustea.
- Denbora, ordutegiak eta erabilera-espazioak mugatzea. Erabilera narkotikoa saihestea.
- Intimitatea pixkanaka kudeatzea.



5. Zer dute nerabeek esateko?

Ondorengoak, Telmo Lazkanok nerabeekin egin dituen lanketetatik jasotako ideia, kezka eta eskakizunak dira, astebetaz mugikorra albo batera uztean jasotakoak gehien bat.

“1. Konturatu dira gu ere, helduok, izugarri engantxatuta gaudela mugikorrarekin, eta hori ikusirik, ulertzen dutela beraien (haurrak) babestu nahi izatea. Baina eredu izan behar gara ahal den neurrian.

2. Entzunak izatea nahi dutela, presentzia handiagoa gurasoen partetik, eta beraien arazoak eta sentimenduak legitimatzea. Askotan hori ez izanda, telefonora jotzen dute.

3. Ezagutza eta tresnak nahi dituzte harreman osasuntsu hori eraikitzeko, ez horrenbeste agindu. Ulertzen dute arauak behar direla, baina, azken batean, momentua iritsita beraien nahi dutela autonomia hori izan eta osasuntsu jokatzeko saiatu.

4. Bere neba-arreba txikiagoei ez diete gomendatzen smartphone-aren erabilera. Beraien ere, atzera egitea izango balute, guztia balantzan jarrita, nahiago lukete smartphonik gabeko nerabezaroa.

5. Bertatik bertara ikusi dutela nola beraien gertuko lagunengan, hala beraiengan, batez ere, sare sozialen erabilerak zer nolako eragina izan duen maila desberdinetan: osasun mentalean, kognitiboan (atentzioa...), izaeran... “

6. Azken gogoeta bat

Azkenik, Telmo Lazkanok “Nerabeen Garrasia” liburuan (59.orr) dakarren gogoeta proposatu nahi dizuegu. Hala dio:

“Joan atzera denboran, eta saiatu zuen bizitzako hiru une zoriontsuenak gogoratzen. Hartu behar duzuen denbora. Pentsatu zertan ari zineten, norekin, non, noiz... Utzi irakurtzeari pare bat minutuz. Benetan gelditu. Gozatu momentu horiekin berriz ere, eta itzuli irakurketara gero.



Ez nintzen ni oso trebea matematiketan, baina ea zer deritzozuen proposatzen dizuedan logika ariketa honi: ez zaituztet ezagutzen baina ziur naiz berriz ere bizi izan dituzun momentu zoriontsu horietan guztietan ez zenutela mugikorrik eskuan, ezta? Ala oker nago? Orain arte emandako formazio guztietan gogoeta hau proposatzean, ez dugu oraindik bestelako erantzunik jaso. Kasualitatea ote da? Bada, logika ariketaren galdera honakoa da: zenbat eta denbora gehiago egon mugikorrarekin, gero eta aukera gutxiago dugu zoriontsu egiten gaituzten une horien antzerakoak bizitzeko, ez al du ariketak hori esan nahi? Hor duzu ariketa, ebazpena zure esku.”

(Lazkano T. Nerabeen Garrasia, 59.orr)

ERABILERA HITZARMENA



1. Gehienez zenbat denbora ?

2. NOIZ?

Astean:

Asteke eguna/k:

Egunean:

Eguneko ordua/k:

3. Zertarako/ zein eduki?



4. Non (Etxean, kalean)?

5. Zein egoeratan (Lagunekin, jardueretan...)?



6. Zeinek eta nola egingo du erabileraren jarraipena?



7. Zein da hitzarmena haustearen ondorioa?



8. Hurrengo berrikusketaren eguna:

Helduaren sinadura

Gaztearen sinadura





Izarkometik eskerrak eman nahi dizkiegu gida hau osatzen, argitaratzen eta zabaltzen lagundu duzuen guztiei.

Som Connexiori, gida honen oinarri den “guia per a famílies cruels i malvades” (2021) lana lizentzia librean gure esku jartzeagatik. Argiari, gure proposamenarekin lehenen momentutik eta erabakitasun osoz bat egiteagatik. Telmo Lazkanori, (No Phone Challenge, Nerabeen Garrasia) bere esperientziatik egindako funtsezko ekarpenengatik. Miren Ros-i (Bidelagun) Zarauzko guraso talde batean hurrei mugikorra ematea atzeratzeko ekimenaz geroztik, kontzientziak pizten jarraitzeagatik. Orkatz Goenaga eta Altxa Burua-ri, Tolosan egiten duzuen eredugarria baita. Leyre Cano eta Rakel Gamitori, mugikorren auziaren inguruan sare eder bat osa dezagun lan egiteagatik, eta Treba Gurasoak-en bitartez, zuen jakinduria eta esperientziak gure etxeetara ekartzeagatik.

Gida hau zuei guztioi esker da eta izango da!

Hemen jeitsi dezakezu Erabilera Hitzarmena egiteko txantilloia:





Euskal Herriko Telekomunikazio Kooperatiba

Gidari buruz:

Azken 15 urteetan analogikotik digitalerako jauzia eman ostean, modu digitalean heztearen erronka ez da makala. Analogikoan hezten badakigu. Imitazio bidez haurrari errepidea igarotzen irakats diezaiokegu, edo marrazten. Baina gaur egungo etxeetan digitalean hezterako orduan zalantza askoren aurrean aurkitzen gara. Eta natibo digitalizat dauzkagun haurrei, inolako aurretiazko prestakuntza edo argibide zehatzik gabe, internetera konexioa duen gailu bat uzten diegu eskura. Ondorioz, umezurtz digitalak direla esaten da gailuaren erabilera desegokia egitera daramatzatenak.

Izarkomen gure bazkideen beharrei erantzuten saiatu izan gara beti, eta bada azken hilabete hauetan zabaldu den kezka bat: **Noiz eta nola eman behar diegu nerabeei lehen mugikorra?** Galdera honek erantzun zehatzik ez badu ere, gure etxeetako ingurune digitala ahalik eta errespetuzkoena, hezitzaileena eta pedagogikoena izan dadin gida bat egitea beharrezko jo dugu.



mugikorra



zuntza



finkoa

www.izarkom.eus
arreta@izarkom.eus
943 569 214